EUSKARA GARA
NAZIOA GARA
ESTATUA GARA
NABARRA GARA

ASKATASUN EGUNA 2026

ABUZTUAK 15

PASAI DONIBANE

ORREAGA

AURKEZPENA

Eguerdi on eta ondo etorri Askatasun Eguneko ekitaldi politiko honetara.

Aurten, estropadak direla eta, aldaketa batzuk egin behar izan ditugu, baina ekitaldiaren muina bere horretan mantendu dugu:

- Lehenengo eta behin, abuztuaren 15ean bildu gara, data seinalatua delako euskaldunontzat. Gaurko egunez, 778. urtean, baskoiek Orreagan garaipena lortu zuten, Karlomagnoren gudarostearen aurka. Handik gutxira, 824. urtean, Eneko Arista Iruñeko Erresumako buruzagi izendatua izan zen. Gure ezaugarri nazionalen garapena eta iraupena ziurtatzeko egitura politikoa izan zen Iruñeko Erresuma, gerora Nafarroako Erresuma izango zena. Orduko baskoiek bazekiten nor ziren: Nabarra ziren.
- Bigarrenik, Santutxoan lore eskaintza eta agurra egin ditugu, Orreagako gudan borrokatu zirenen omenez, eta baita –orduko baskoi haiek bezala– gure herriaren eta gure estatu propioa berrezartzearen alde borrokan ibili diren pertsona guztien omenez ere. Oraingo euskaldunok ere badakigu nor garen: "EUSKARA GARA, NAZIOA GARA, ESTATUA GARA, NABARRA GARA".
- Hirugarrenik, orain eta hemen, sei kideren hausnarketa politikoak entzungo ditugu. Eskutitz edo gutun eran emanda daude; gizarteko estamentuei zuzendutako gutunak dira, hain zuzen ere.

Amaieran, mutxiko jauziak dantzatzeko aukera ere izango dugu, Urbeltz anaiek gidaturik, eta gero elkarrekin aperitifa hartuko dugu.

Baina, esan bezala, orain sei gutun labur izango ditugu.

GUTUN IREKIA FRANTZIA ETA ESPAINIARI

Aldamenean ditugun bi estatu inperialistei zuzendua dago gutun hau.

Aspaldi sartu zineten gurean indarrez, bortxaz. Zuena bezain librea zen herri bat zapaldu zenuten. Gaur ere okupatua duzue zuena ez den lurralde bat, zuena ez den nazio bat, zuena ez den estatu bat.

Denbora luzea igaro da harrezkero, bai, baina denbora luzeagoan izan ginen libre, eta jakin ezazue gaurko zapalkuntza-egoera ez dela betirako izango. Guk ez dugu onartzen gure herrian duzuen presentzia inperiala. Nola edo hala kanporatzen saiatuko gara; dudarik ez izan, lortuko dugu berriro askatasuna, independentzia.

Zuen lurraldea gurearen kontura handitzea indarrez inposatu ondoren, gure instituzioak suntsitu zenituzten eta ordezkatu gaur zuen esanetara eta zuen mesederako indarrean daudenekin, gureak direla sinetsarazi nahian. Baina buru-alienazio hori ez duzue erabat lortu, ezta lortuko ere. Guk ez ditugu onartzen gureak balira bezala.

Badakigu gure lurraldea zatitzeko eta menperatua duzuen lurralde honetan zuen betebeharrak jorratzeko eraiki dituzuela.

Badakigu zuen boterearen administrazio hutsa direla, ez dutela botere propiorik, zuen zapalkuntza zuritzeko eta inposatutako zatiketa betikotzeko ezarri dizkiguzuela.

Badakigu gure herria lokartzeko erabiltzen ari zaretela, eta ogi papurrak eskatzeko bakarrik balio digutela.

Logikoa denez, ez ditugu erabiliko inoiz Euskal Herriaren independentzia lortzen saiatzeko. Badakigu zein den horretarako bidea: gure instituzioak eraiki behar ditugu, inoren baimenik gabe gobernatuko dutenak.

Mende askoko herria da Nafarroa, eta inperio guztiei heldu zaie garai iluna, biolentziarekin lortutako garaipen guztien galera. Zuei ere etorriko zaizue, eta gu hemen izango gara, ezin izan duzuelako azken muturreraino eraman zuen handinahi inperialista.

Zuen damugarri, hemen gaude oraindik, bizirik gaude oraindik, eta beti izango gara gure betiko lurraldean!

Ez da erraza izan orain arte, ezta izango ere hemendik aurrera, baina lortuko dugu guztion artean, dudarik ez izan!

GUTUN IREKIA SOZIAL-INPERIALISTEI

Lehen Mundu Gerra hastear zela, Alemaniako SPDk (alderdi sozialistak) nahiago izan zuen burgesia alemanarekin elkartu eta alemaniar inperialismoaren alde gerra egin, errusiar langile-klasearekin elkartu baino. Leninek esan zien: "sozialistak izenez, chauvinistak izatez". Geroago, Sobiet Batasunak Txekoslovakia inbaditu zuenean Maok esan zien: "sozialistak izenez, inperialistak izatez". Ordurako, baina, Txinak aspaldi anexionatua zuen "de facto" independentea zen eta independente segitu nahi zuen Tibet. Horra sozial-inperialismoa: herrialde bateko langile-klaseak beste herrialde batekoa zapaltzen.

Euskal Herrian ere ugari zarete sozialismoa eta internazionalismoa ahotan duzuenak baina espainiar eta frantziar sozial-inperialistak zaretenak. Batzuk zuen bulego odolduetan, gehienok kale lan zikina egiten, euskaldunon idiosinkrasia, kultura, hizkuntza eta ongizatea hondoratzen. Kolonialismoa, alegia, biztanleriaren inperialismoa praktikatzen duzue. Gure herrian bertan zapaldu, baztertu eta ordezkatu nahi gaituzue, zuen benetako helburua lortzeko: gu espainol edo frantses bihurtzea.

Sozialismoaren idealak bihurrituz eta masen baldintzapen ideologikoaren monopolioa eta beste hainbat amarru baliatuz, "auzi sozialaren" eta "auzi nazionalaren" arteko aurkakotasunari buruzko eztabaida zahar, antzu eta faltsua zabaldu duzue engainagarri.

Konpondu beharreko arazo sozial ugari ditugu, bai: emakumearen diskriminazioa eta haren kontrako bortizkeria, jaiotza-tasa txikia, langabezia, gazteon lan-baldintzak, pentsioak, etxebizitza, migrazioa... Luze segi nezake arazoak zerrendatzen, baina ez nauzue bide horretan katramilatuko, hemen gaudenok ez gaituzuelako zuen maltzurkeriekin engainatu. Aspaldi erakutsi zigun Iñaki Aginagak ez dagoela disjuntziorik arazo nazionalaren eta arazo sozialen artean: arazo nazionala beste arazo sozial bat da, eta ez edonolakoa, larriena baizik. Ara-

zo nazionala lehenengo konpondu beharreko arazo soziala da, beste guztien konponketarako markoa mugatzen duelako. Herri batek ezin ditu bere arazo sozialak konpondu independentea ez bada.

Agian, gure Iñaki baino, Engels jauna sentituko duzue hurbilago zuek; bada, hona zer idatzi zuen 1872an internazionalismoaren eta inperialismoaren bateraezintasunaz:

> Nazio konkistatzaile bateko kideek konkistatu duten eta menderatzen jarraitzen duten nazioari eskatuko baliote bere posizio eta nazionalitate espezifikoa ahazteko, "desberdintasun nazionalak ezabatzeko" eta abar, hori ez litzateke Internazionalismoa izango: uztarriarekiko menpekotasuna aldarrikatzea besterik ez litzateke izango, eta Internazionalismoaren aitzakiapean konkistatzailearen nagusitasuna justifikatzen eta betikotzen saiatzea.

Askatasuna ez da irakatsi eta ikasten den zerbait, askatasuna bihotzean bizi den irrika hilezkorra da, eta guk, hemen gaudenok, zuen aurka borrokatu ziren gure arbasoengandik jaso dugu irrika hori. Beraz, berriz diotsuet, ez gaituzue engainatu, ezta engainatuko ere. Galdu itxaropen oro. Gure herria askatuko duen jende librea gara.

Zuen herrialdeetako buruzagiek bidali zintuzteten hona gu errazago azpiratu, baztertu eta ezabatzeko. Gu bezala, zuen herrikideen biktima zarete, baina batez ere gure borrero. Bide bakarra duzue zuen eta zuen seme-alaben betirako deserrotzea saihesteko. Euskaldunak izan nahi baduzue, bildu guregana eta lagundu Nabarrako estatua berrezartzen.

Espainolak (frantsesak) bazarete, jakin ezazue inperialismoaren kalteak ez direla norabide bakarrekoak. Herri menperatzailearen existentzia ez da kolokan izango menderatuarena bezala; baina zapalkuntza sistema horrek barnean ere erregimen totalitario faxista bat sortzen du. Berriz ere Aginaga aipatuz:

> Espainian eta Frantzian despotismoa historikoki banaezina da nazionalismo inperialistatik. "Liberal, sozialista, komunista eta anarkista" nazionalen laguntzarekin modu txarrez irabazitako lurralde kontinental eta itsasoz haraindikoetan tenplatu ziren orain metropolia gobernatzen duten armaden sableak. Indotxinan, Aljerian, Marokon, Kuban, Nabarran, Katalunian, beren barne-despotismoko kateak sortu zituzten. "Beste herri bat zapaltzen duen herria ezin da aske izan".

Espainolak (frantsesak) bazarete, bada, joan Espainiara (Frantziara) eta borrokatu bertan gure askatasunaren alde: zuena ere berreskuratuko duzue.

GUTUN IREKIA EUSKAL HERRIKO KAZETARIEI

Zuek zarete eguneroko errealitatea kontatu, interpretatu eta eraikitzen duzuenak. Zuen esku dago gizarte baten ikuspegia moldatzea, gaiak lehenestea eta herri baten kontzientzia kolektiboan eragitea. Ez zarete gertatzen denaren lekuko soilik: errealitatea bera ere fabrikatzen duzue, interes, ikuspegi eta hautu jakin batzuen arabera.

Euskal Herriaren azterketa zintzoek erakusten dute hau herri menderatu bat dela. Mendeetan beste estatu batzuen mende bizi izan gara –oraindik ere, halaxe bizi gara–, eta egoera horrek gure egitura politiko, kultural eta sozialak baldintzatu ditu. Mendekotasun horrek ez du eragin instituzionala izan bakarrik: gure pentsamoldea, geure buruaz dugun irudia eta gure jarduteko moduak ere moldekatu ditu.

Hala, komunikabideek funtsezko eginkizuna dute. Menderatutako herri batean, bi bide nagusi dituzte: edo menderatzailearen ikuspegia erreproduzitu, edo menderatuaren ikuspegia landu, indartu eta legitimatu: ez dago neutraltasunik.

Gaur egun, sarritan ikusten dugu gureak uste ditugun komunikabideek ez dutela estrategia nazionalik. Gure errealitatea beste estatuen markoan kokatzen dute, haien agenda eta erreferenteak lehenetsiz. Horren ondorioz, gure herria bi, hiru edo zazpi zatitan zatituta, mendeko eta beti eskean agertzen da: eskubideak, aitortzak edo baimenak eskatzen, bere kabuz jarduteko gaitasuna ukatua balu bezala.

Gainera, komunikabideek sarritan ezkutatu edo lausotu egiten dituzte mendekotasun-egoeraren oinarriak: biolentzia estrukturala eta sinbolikoa. Aldiz, arreta ia erabat bideratzen da bestelako gaietara, testuinguru historiko eta politikoa desitxuratuz. Horrela, herriaren askatasun-beharra lausotu egiten da, eta normalizatu egiten da mendekotasuna.

Zuek, kazetariak, eragin handia duzue herri honen kontzientzian. Zuen lanaren bidez, agenda bat ezartzen duzue, erreferente batzuk legitimatzen dituzue eta beste batzuk baztertzen. Zuen hautuek baldintzatzen dute zertaz hitz egiten dugun, zer jotzen dugun garrantzitsutzat eta nola ikusten dugun geure burua.

Horregatik, hauxe eskatzen dizuegu:

Euskal Herria subjektu informatibo nagusi bihurtzea. Gure errealitatea bere osoan eta Euskal Herriaren ikuspegitik lantzea, beste estatuen mendeko osagarri gisa aurkeztu gabe.

Ez legitimatzea inola ere menderakuntza-egoerarik. Aitzitik, haren izaera agerian uztea eta deslegitimatzeko lan egitea.

Gure kultura, hizkuntza eta erreferente propioak lehenestea. Kanpoko erreferenteek betetzen duten espazioa gureek hartu dezaten, geure burua geure begietatik eraikitzeko.

Agenda informatiboa berrantolatzea, gure herriaren behar eta interes nazionaletan oinarrituta, gure lurralde guztiak modu integralean txertatuz.

Kontzientzia kritikoa sustatzea, herritarrak mendekotasun-egoeraz jabetu daitezen eta askatasunaren beharra uler dezaten.

Badakigu zailtasunak daudela: interes ekonomikoak, presio politikoak, inertzia ideologikoak. Baina badakigu, halaber, kazetaritzak baduela ahalmena bide berriak irekitzeko eta gizartearen norabidean eragiteko.

Gutun hau, bereziki, oharkabean menderatzaileen betaurrekoak jantzita lanean diharduzuenentzat da. Betaurrekoak aldatuta, zama arinduta, askatasunerako bidea argiago ikusiko duzue. Ulertuko duzue bide hori egiteko behar ditugun indarra eta sormena begirada aldatzean bakarrik lortuko ditugula.

Dei egiten dizuegu, beraz, zuen lanaren bidez Euskal Herriaren askatasunaren aldeko ekarpena egitera, zuen posiziotik, zuen tresnekin, zuen ahotsarekin.

Herri honek behar zaituzte, eta asmatuko du zuen konpromisoa saritzen.

GUTUN IREKIA IRAKASLE ABERTZALEARI

KEZKATUTA ZAUDE

Ohartzen zara ikasleek geroz eta gutxiago darabiltela euskara komunikatzeko eta ohartzen zara erabiltzen duten euskara eskasa dela.

Ohartzen zara haien artean euskal identitatea eta nazio-kontzientzia urtez urte eta etengabe ahultzen doala.

Ohartzen zara euskal kulturaren transmisioan eten izugarria gertatu dela.

Ohartzen zara ikasleei ez zaiela esaten herri menderatua dela gurea, gure herriak ez duela inoiz amore eman eta frantsesa eta espainola inposatutako hizkuntzak direla eta abar, eta abar.

Eta ohartzen zara zoritxarrez irakasle askok, batez ere belaunaldi berriek, errealitate hau naturaltzat jotzen dutela eta era berean normalizatu egiten dutela.

KEZKATUTA ZAUDE

Badakizu estatuek euren interesen arabera diseinatzen dutela hezkuntza sistema.

Badakizu gurean Frantziak eta Espainiak betetzen dutela lan hori. Beraz, ondorioz, badakizu Euskal Herriak ez duela hezkuntza-sistema propiorik.

Badakizu eskolaratzea menperatzaileentzat asimilaziorako tresna dela.

Badakizu irakasleok, bertan, eragile zuzenak garela, eta, neurri batean, gure lanak erantzule bihurtzen gaituela.

Badakizu eskaintzen den hezkuntza herri libre batean biziko bagina bezala eskaintzen dela.

Kezkatuta zaude

Nazio-ikuspegia duen hezkuntza nahi dugu, gure kulturan oinarritua, euskal nortasuna lantzen duena, euskaldun osoak sortzen dituena.

Egoera honen aurrean zer egin?

Hasteko, kezkatuta gauden irakasleak elkartu eta antolatu. Nork bere kabuz eta bere esparruan bakarka lan egin beharrean, elkartu. Euskal Herri osoko hezkuntza-erresistentzia sarea sortu beharko genuke, taldean lan eginez egin diezaiokegulako aurre egoera honi. Gure egitura eta instituzio propioak izan arte, baliabideak eta bitartekoak sortu beharko ditugu nahi dugun hezkuntza osatzen joateko. Horretarako, ahalik eta sarerik indartsuena osatu beharko dugu.

Prest zaude sare horri zure eskua luzatzeko?

GUTUN IREKIA HERRI HONETAKO INTELEKTUALEI

Zuek zarete gizartearen errealitatean eragiteko azterketa kritikoan, kultur sorkuntzan eta ideien hedapenean diharduzuen pentsalariak.

Zuen funtzioen artean daude fenomeno konplexuak aztertzea, gizarte-balioak babestea, kontzientzia kritikoa sortzea eta ezagutza espezializatuaren eta publiko orokorraren arteko bitartekari gisa jardutea.

Euskal Herriaren azterketa kritikoak aldameneko bi estatu inperialisten zapalkuntza-egoera argi bat erakusten du: haien legedipean hartu behar ditugu beti erabakiak, heteronomia batean bizi gara, beste batzuek erabakitzen dute gure etorkizuna, menpeko herri bat gara.

Horrek argi erakusten du non dagoen boterea: Espainian eta Frantzian. Batzuek diote globalizazioak eta modernitateak indarra eta erabakimena ahuldu dietela estatuei. Hala izango da, agian, baina menperatzaileak menperatuarengan duen boterea ez da gutxitu; Euskal Herria dugu horren adibide.

Hori ikusarazi nahiko genieke gure herrikideei. Zapaltzaileek demokrazia-itxurarekin mozorrotzen dute euren indarkeria, ezin dute beti agerian utzi. Eta ustezko demokrazia horrek gutxitzen du askatasun-desioa. Preso sentitzen ez denak ez du askatasunaren beharrik sentitzen.

Baina bere independentzia indarrez lapurtu zaion eta zapalduta bizi den herri honetan ez dago inoiz demokraziarik. Gure herriaren askatasuna da demokrazia horretarako baldintza ezinbestekoa.

Dudarik ez dugu intelektualen artean askok argi ikusten duzuela herri honen mendetako askatasun eza, baita hura berreskuratzeko grina ere. Baina azken hori apaltzen doa, nolabaiteko etsipenean erortzen.

Zuek, intelektualok, herriarekiko eragin-botere bat duzue ideien hedapenen bidez. Baita zapalkuntzaren aurkako kontzientzia kritikoa sortzeko ahalmena ere. Horregatik eskatzen dizuegu zuen zeregin honetan inplikatzeko.

Batzuk ariko zarete jada lan horretan, agian, eta eskerrak eman nahi dizkizuegu. Isilik zaudetenontzat da batez ere gutun hau. Isilik egoteak egungo egoera luzatzea besterik ez dakar eta.

Irten zaitezte isiltasun horretatik eta lagundu iezaguzue herri hau askatasun-bidean jartzen. Euskal Herriak jakingo du zuen ahalegin hori eskertzen.

GUTUN IREKIA ERRESISTENTZIARI

Politikak, erresistentziak, subiranotasunak, independentziak… helburu bakarra dute: herriaren bizia. Eta hemen gaude euskaldunok, bizirik. Anbizioak anbizio, nahiak nahi, esan daiteke herri honek mendeetan eta gaur egun egindako erresistentziak edo lan politikoak bere fruituak eman dituela: hemen gaude. Bide luzea dugu oraindik askatasunerako hala ere.

Besoak, hankak, lotuak ditugu. Begiak lauso. Burua noraezean. Bihotza nekaturik. Zerbait badugu, immunitatea da. Eta, immunitatea dagoenean, osatzeko ahalmena dago.

Euskal Herria osatzeko betebeharra, edo funtzioa, inork badu, erresistentziaren mugimenduak du. Erresistentziaren mugimenduari dagokio bihotzak eta pentsamenduak berpiztea, lokarturik dauden horiengana hurbilduz. Ez dira beraien baitan mugituko.

Eta, elkar sendatzeko, osatzeko, gorputz-atalak ezin dira banaturik egon. Euskal Herri osora iritsi behar dugu, entzun, eskua luzatu. Oihu egin ere. Zeren erresistentziak ez baitu muga artifizialik jartzen gure herrian: Euskal Herria eta euskal herritar guztiak ditu gogoan, alderdi autonomistek ez bezala. Erresistentziak ez du hegoalde/iparralde bereizten. Ez du klase sozialik lehenesten edo baztertzen. Ez ditu boto-emaileen interesak soilik babesten. Ez du dohaintza-emailerik edo *lobby*rik ase behar. Inork besoak zabalik baditu herri honetan, erresistentziak ditu.

Noski, ez da zori hutsez horrela garatu erresistentzia. Zapalkuntza luzeak ongi irakatsi dio bidea: ez du espero ezer onik okupatzailearengandik. Badaki zatiturik nahi gaituztela. Ez du okupazioak sortutako narratiba, muga geografiko, estamentu eta egituren oniritzirik nahi. Ezta kolonizazioak sortutako kontsentsu trakets horretan sinesten ere. Bere funtzioa argi du: okupazioa zuritzen duen fartsa agerian uztea, instituzio propioak edukitzea esku-sartze inperialis-

tarik gabe, zapalkuntzaren egitate historikoak zein gaur egungoak jakinarazi eta zabaltzea, herria batzea (zatitu ordez) eta erasotzailea kanporatzea. Horra hor gure sendamena.

Baina guk ere elkar immunizatu behar dugu. Pesimismoaren kontra. Optimismoaren kontra. Nostalgiaren kontra. Liluren kontra. Nagikeriaren kontra zein pazientziarik ezaren kontra. Birus horien guztien artean hainbat izango du gutako bakoitzak, eta ez dago sendamen posiblerik bakardadean. Lagun hurkoa, familia, kideak behar ditugu alboan. Gaur hemen gauden bezala.

Zeren ez dago atsekabetzeko, itxaropena galtzeko arrazoirik. Herriaren aldeko borroka, garaipenak eta porrotak historiaren parte banaezina dira. Berdin duela 1000 urte. Berdin independentziaren ondorengo egunean ere. Beti egingo dugu herriaren alde lan. Garai argienetan, ilunenetan zein egungoa bezalako grisetan ere. Nolatan atsekabetuko gara gure herriko historia osoan izan dugun erronka bera egokitu zaigulako?

Beraz, elkar osatu, sendotu dezagun. Ateak ireki. Horretarako bildu gara gaur hemen.

GORA EUSKARA!
GORA NAZIOA!
GORA ESTATUA!
GORA NAFARROA!

ORREAGA

www.orreagataldea.com